

Artikutzako ttanttak



Artikutzako ttanttak

Aurkibidea

Aurkibidea.....	2
ELKARRIZKETA	3
ARTIKUTZA IRUDIETAN	6
ZER BERRI?	8
Artikutzaren baliabideak	9
Argitalpena: Artikutza Naturaleza e historia.	10
ERRAIETATIK.....	11
BILDUMA.....	12
<i>Viscum album</i> , <i>Mihura</i>	12
SUAREN EPELEAN.....	13
IRUDIEN GALERIA.....	13

Argazkiak: Kontrakoa adierazten ez bada A. Santana eta E. Ruiz.

ELKARRIZKETA

Gaurkoan apurka-apurka gero eta zabalduago dagoen gai bati buruz hitz egingo dugu, baso bainuei buruz, Horretarako, Gorka Altunarekin gaude Europako Hegoaldeko Basozainen Batasuneko (USSE) proiektuen aholkulari teknikoa eta arduraduna.

iKaixo Gorka! Plazer handia da zu gurekin izatea. Zure burua aurkeztuko duzu eta azalduko diguzu zer da USSE-n egiten duzuen?

Kaixo! Eskerrik asko interesatzeagatik USSEn eta basoen eta ongizatearen inguruan egiten dugun lanetan.

USSE Europako hegoaldeko baso-jabeen elkarte pribatuek osatutako nazioarteko elkarte da, horien artean Portugal, Galizia, Gaztela eta Leon, Asturias, Kantabria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Nouvelle-Aquitaine-eko (Francia) elkarte, federazio eta konfederazioak daude.

Gure lanak hainbat jarduera ardatz ditu, horien artean nabarmenduko nituzke eskualde, estatu eta nazioarte mailan USSEn lehentasuneko gaietan garatzen diren proiektuak, besteak beste, basoek pertsonen osasunean eta ongizatean duten eragina, komunikazioa eta gizarte kontzientziak.



Gorka Altuna, USSE-ko proiektuen aholkulari teknikoa eta arduraduna. Argazkia, Gorka Altuna.

Eta baso bainuak edo Shinrin Yoku, azalduko diguzu zertan datzan eta nondik ateratzen den idea hau? Zelan heldu dira gugana?

Hainbat definizio daude baso bainuen inguruan. European, Forest Therapy Institute (FTI)-ak, USSEko laguntzailea, baso bainuak eta basoko terapiak bereizten ditu.

Shinrin-Yoku edo baso bainuak 1982an Japonian sortutako praktika bat da. Praktika hau jaio zen biztanleriaren estres mailak murrizteko diseinatutako osasun programa nazional baten barruan.

Baso bainuak, naturarekin daukagun lotura sendotzeko praktika osasungarria da, jarduera honek osasuna sustatzen du eta praktika ongizatea hobetzea, estresa murriztea eta atsedena piztea ditu helburu. Nire esperientziatik azalduta, basoan ariketa espezifikoak egitean datza inguruan dauden kolore, usain, tenperatura, soinu, zapora, tamaina, forma, testura, argitasun, mugimendu, portaera, material, egoera, jarduera, egitura, zantzu eta abarrez gozatzeko. Erabiltzen den teknika, nazioarteko mailan azken 30 urteetan sortutako ezagutza zientifikoan (argitaratutako ikerketetan) oinarrituta dago.

Baso bainuak burutzeko beharrezkoa da zuhaitzez betetako lursail bat eta baita ere, bereziki prestatutako gida bat.

Bestalde, basoko terapia baso bainuen teknikaren aplikazioan oinarritzen da, baina kasu honetan osasun edo gizarte arloko profesionalak burutzen dute. Horrela, terapia hau gaixotasun espezifikoetarako tratamendu eta errehabilitazioen osagarria izan daiteke.

Adibideren bat eman ahal diguzu zelan burutzen diren jakiteko?

Hainbat aldiz parte hartu dut Alex Gesse gidariarekin eta baso bainu bakoitza ezberdina izan da, nahiz eta, beti eduki dinamika komun bat. Aldea gidak proposatzen dituen ariketetan dago, baso bainu

bakoitza basoaren ezaugarrien, parte hartzaileen eta horien osasunean eta ongizatean bilatzen duen inpaktuaren arabera da. Gidaria ariketak proposatzeaz gain inguru seguru bat sortzea eta parte hartzaileen osotasun fisikoa eta mentala zaintzeaz arduratu behar da. Parte hartzaile bakoitzak bere sententzioak besteekin parteka ditzake (edo ez)(erabiltzaile bakoitza librea da ariketak egiten duen ala ez eta nola egiten dituen erabakitzeko).

Eta zeintzuk dira baso bainuak dituzten onurak?

Argitalpen zientifikoetan oinarritutako bibliografiari dagokionez, frogatu da basoetan paseatzeak loaren kalitatea, gogo-aldarte, kontzentrazio gaitasuna eta estres mailak hobetzen dituela. Estres kronikoak lagun dezake antsietatea, depresioa eta insomnio bezalako gaitzak garatzen. Arazo fisiologikoak ere eragin ditzake, hala nola presio arterial altua, giharretako tentsioa eta erantzun immunologikoaren gutxitzea. Naturan denbora pasatzeak, teknologia modernotik eta hiri handietatik urrun, osasun fisikoa eta mentala hobetu ditzake, estresak gorputzean dituen eraginak murriztuz.

Gure kasuan, "Busturialdeako baso bainuen ezarpena eta dinamizazioa" proiektuaren baitan egindako ikerketa, baso bainuen bizi-kalitatearekin lortutako lau dimentsiotan duten eragina neurtu zuen: ongizate fisikoa, ongizate emozionala, pertsonen arteko harremanak eta garapen pertsonala.

Ibilbide gidatuak egin zituzten pertsonak antsietate mailak murriztu zituzten, pertsonen arteko harremanak hobetu eta praktika egin eta gero energia gehiago zeukaten.

Jarduera hauek egiten diren tokiak ezaugarri bereziren bat eduki behar dute? Momentu honetan non praktikatu daitezke?

Basoak leku ezin hobeak dira baso bainuetan proposatzen diren ariketak egiteko. Edozein baso izan daiteke aproposa koniferoak, hostozabalak edo mistoak, batez ere, basoen barrualdera sartzeko eta sakabanatzeko errazak direnak dira egokiak.

Garrantzitsua da ondo zaindutako baso-pistak eta bidexkak edukitzea, hau da, irisgarritasun ona izatea. Gogoratu behar da hiriguneetatik gertu, ondo kudeatutako baso asko jabetza pribatukoak direla, eta lursaila hesituta ez badago behintzat lur horiez goza dezakegu. Baso publikoak baso bainuak praktikatzeko beste aukera on bat dira, baina hiri gunetatik urrunago egon ohi dira.

Zein herrialde interesatu dira gehien baso bainuen inguruan?

Duela gutxi arte, 3 korrante desberdin ziren nagusi: japoniarra, korearra eta amerikarra. Baina gaur egun Europa osoan interes handia dago baso bainuen ezarketan. Alemania, Australia, Ingalaterra, Eskozia, Irlanda, Danimarka, Portugal eta Espainia dira Europan garapen handiena izan dezaketen herrialdeak.

Gainera, 46 herrialdeetako baso-eskumenak dituzten ministroak 4 urtean behin biltzen dituen Europako ministerio prozesu pan-europearrak (Forest Europe) lantalde bat sortu du, "Human Health and Sustainable Forest Management" (giza Osasuna eta baso kudeaketa jasangarria) argitalpenean lan egiteko. Talde horretan Europa osoko baso bainuekin lotutako esperientziak biltzen dira (horien artean gure Busturialdeko proiektua dago).

Bestalde, FTIk basoko bainuen giden prestakuntzak herrialde askotan (Europan, Hego Amerikan eta Ipar Amerikan) antolatzen ditu eta 2019an ikastaro guztiak bete zituzten.

Eta pertsonak? Baso bainuak, gomendatuta daude publiko bereziren batentzat? Ikasleak, helduak, osasun arazoak dituztenak...

Baso bainuen ezaugarrietako bat edozeinek (salbuespenak salbuespen) egin ditzaketela da, adina, osasuna, kultura eta abar inporta barik.

Zentzu zabalenean, pertsonak naturarekin birkonektatzea eta haien ongizatea hobetzea bilatzen duen jarduera da, aurretik aipatu ditugun osasun-arazoak saihestuz. Horrek izugarrizko eragin ekonomikoa izan dezake osasun publikoan, gizarte osasuntsuago batek gutxiago gaixotuko bailuke, eta horrek laguntza eta tratamenduetan aurrezteka ekarriko luke.

Lehen esaten nuen bezala, badago baso terapiaren aldaera. Teknika horren bitartez talde zehatzekin lan egiten da nahasmendu zehatz baterako inpaktu jakin bat bilatzen baita. Gaur egun arte, esperientzia gehienak buruko gaixotasuna duten pertsoneri lotuta daude baina, beste batzuen artean gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteentzat ere egin dira.



Alex Gesse gidatutako baso bainua Mendatako inguruan

Praktikatzen dutenentzat dituen onurak, osasun eta hezkuntza mailan ez ezik, ba al dago ihes egiten digun beste balio erantsirik?

Izan ere, gure kasuan, baso mundutik kanpoko pertsoneri (oro har, "urbanitei") baso lurak zer diren jakinarazteko aukera ematen digun jarduera bat da, eta basoak baso bainuetarako, perretxikoak biltzeko, kirola egiteko, paisaiaz gozatzeko, CO₂ finkatzeko, kutsadura iragazteko... gaur egun zerbitzu ekosistemikoak, deitzen direnak, erabili ahal izateko duten garrantzia adierazteko balio digu.

Gainera, jendea basora hurbiltzeak, eta beraz, landa eremuetara hurbiltzeak, modu inkontzientean balioesten du ongizatea ekarri dien espazio horren kontserbatzeko nahia sortzea. Azken batean, baso bainuek hiri eremuren eta landa eremuaren arteko lotura handitzen dute.

Azkenik, landa ingurumenetan sor daitezkeen jarduera eta enpleguen gorakada nabarmendu behar da; gidak, ingurumen edo turismo zerbitzuetan zentratutako enpresetan gehitutako zerbitzuak, baso jabeentzako konpentsazioak, inguruko establezimenduetara gehiago joatea...

Bukatzeko, Artikutza jarduera hau egiteko leku egokia izan daitekela iruditzen zaizu?

Donostiakoa izanik eta mendia gustuko izanda, Artikutza nire aisialdirako leku gustukoenetako bat da eta nahiko ondo ezagutzen dut finka. Eremu ezin hobea da, baso, flora eta fauna aniztasun handikoa, baina baita irisgarritasun oneko gune eta ingurumena ere (larreak, errekaak, eremu ilun eta argiak, hezeguneak, orientazio eta malda ezberdinak...). Adibide ona da nola, babestutako guneen kudeaketak aberastasuna handitzen duen eta gaur egun gizarteak eskatzen dituen zerbitzuak eta produktuak eskaintzen dituen.

Basoko bainuetan zentratzen bagara, sekulako eremua da. Ez ahaztu baso bainu batean ibilbidea oso gutxitan kilometro bat baino luzeagoa dela, beraz Artikutzan baso bainuen ibilbide asko diseina daitezke, publiko orokorarentzat egokituak, edo zehatzagoak, basoko terapiak kasu.

Alex Gesse bere baso bainuetarako gune aproposak aurkitzen lagundu dut eta horregatik ezagutzen dut gutxi gora behera zer bilatzen duen gidari batek. Artikutzaren kasuan, uste dut errepide bidezko irisgarritasunagatik eta gune aniztasunagatik, herriaren ingurua eta urtegia inguratzen duen pista leku onak izango liratekeela basoko baso bainuentzako.

ARTIKUTZA IRUDIETAN



Scilla lilio-hyacinthus landarea pagadi eta hezetasun handiko basoetan hazten da, Argazkia: I. Uranga



Goizartín, burdinola zahararen zubia. Artikuiza. Argazkia: N. Amezaga

ZER BERRI?

Artikutzaren baliabideak

Ingurumen hezkuntza gure natur guneak deskubritzeko, zaintzeko, laguntzeko eta maitatzeko aukera eskaintzen digu.

Ingurumen hezkuntzako programak sustatzearen helburua Biosferaren kontserbazioa da. Gainera, ingurune natural babestu batean egiten badira, hala nola Artikutzan, aparteko lekua izanda bere balio natural, historiko eta kulturalengatik, aukera ematen digu paisaien edertasunaz goatzeko, haien balio ekologiko eta kulturalaz ikasteko, beren ekosistemen adierazgarritasuna aztertzeko, eta faunaren, floraren eta formazio geomorfologikoen berezitasuna aztertzeko. Bestalde, basoan sartzean hainbat bitxikeria aurkitzen dituzu.


Zer deskubritu dezakegu Artikutzan? Nola ezagutu dezakegu Artikutza? Emen dituzue proposamen batzuk naturan paseo bat ematen duzuen hurrengo aldian ahalik eta etekin handiena atera diezaiozuen.



Imajina dezagun Artikutzako ibilbideren bat aukeratzen dugula, adibidez, Eskas Artikutza, Elizmenditik, ibilaldi ezaguna, baina alderdi askotan ezezaguna. Zer ikusten dugu? Ibilbidean beste gauza askoren artean hainbat baliabide natural ikusiko ditugu, monumentu megalitikoak, flora aparta, basoetan bizi den faunaren arrastoak eta erreka txiki eta handiak. Baina goazen nabarmentzera horietako batzuk!

Arroka mota ezberdinak ezagutzeko jarduera erraz bat proposatzen dizuegu. Mendiko bidexka batetik ibiltzen hasten garenean askotan lurrera begira goaz, estropezu ez egiteko; Baina zer dago hor? Zertaz osatuta dago lurzoru hori? Ba Artikutzan material ezberdinak aurkituko ditugu, horiek ezagutzeko gai izango al zinatekete? Argazki batzuk atera ditzakezue, gero material horiek konparatzeko. Planteatutako ibilaldian, lehenik, arbelari gogoratzen digun arroka gris eta mailakatu edo laminarra aurkituko dugu, baina arreata gehixeagoz begiratzen badiogu, ikusiko dugu distira egiten duela, beraz, filita izango da. Gainera, noizean behin, arroka zuri gogor bat agertzen da filiten artean, kuartzita.

Oinez jarraituz gero, Erroiarriko ur jauzira helduko gara, ingurura begiratzen badugu zerbait aldatu da, gure oinen azpian harri zurixka dugu, eta honetan mineral batzuk agertzen dira. Gainera zonalde horretako erliebea leunagoa da eta arroketan ezin ditugu bereiztu lehen ikusten genituen forma planokarak. Granittoa da, leukogranito bat. Ibilbidea Enobietako presan bukatzen da, horraino heltzeko pista batetik joango gara, zapaltzen dugun pista hareatsua da, hondartzetako harea dirudi, izan ere, zapaltzen dugun materiala ur jauziaren inguruan aurkitzen genuen bera da, granittoa, baina zerbait gertatu zaio, desintegratuta dago. Granittoa arroka gogor eta erresistentea den arren, urarekin kontaktuan egotean desagregazio prozesu bat jasaten dute, fenomeno hau meteorizazioa deitzen da, eta lurzoru hareatsu hauek sortu dituena da.



Paseoan zehar identifikatu ditugun arroak zehazten dute, neurri handi baten, lekuaren morfologia eta azken 300 milioi urteetako historiari buruzko informazioa ematen digute. Dakizuenez iragana da etorkizunaren giltza, beraz, lekuaren geologiak zehaztuko du etorkizuneko bilakaera.



Identifikazio eta interpretazio ariketa hori basoko beste elementuekin egin daiteke. Adibidez, zuhaitz motekin, paseoan zehar hainbat hosto lurretik jasoz, eta ondoren, bertako flora identifikatzeko. Ziurrenik konturatuko gara zuhaitz mota bakoitzak nahiago duela eremu jakin bat, hegoaldera edo iparraldera begira dauden haranak, edo landaketaren bat edo espezie aloktonoren bat ere detektatuko dugu (jatorriz beste herrialde batekoa).



Paseoan atera ahal ditugun argazkien adibideak.

Ingurune bateko berezitasun eta aberastasunez jabetzeko beste jarduera bat basoari erreparatzea da, baso guztiak ez baitira berdinak. Artikutza natura programan eskolei proposatzen diogun jolasetako bat hau da: taldeko kide bakoitzak galdera pare bat pentsatu, lagunartean edo familian jolasa egin ahal izateko norbaitek aurrez pentsatutako galderen erantzunak ezagutu behar ditu. adibidez, zein da pagoen fruitua? Gorostiak babestuta daude? Zenbat urte bizi daiteke haritza? Lerroan jarri beharko gara, bata bestearen sorbaldaren alboan, eta galdezka hasi. Galderaren erantzuna ezagutzen ez badugu, pixka bat makurtu beharko gara, bigarren aldiz huts egiten badugu, belauniko jarriko gara, eta hirugarrenarekin lurrera botako gara. Galderak amaitzen ditugunean ikusiko dugu nola batzuk lurrean dauden, beste batzuk makurtuta eta kontrara batzuk zutik, inguratzen gaituzten zuhaitzen isla. Dinamika txiki honen bidez, ohartuko gara ekosistemak zuhaitz zahar

handiak, zuhaitz gazteak eta zuhaitz hilak dituela (funtsezkoak ekosistemaren zati handi bat bizirik mantentzeko).

Jarduera hauek hainbat baliorekin lotuta planteatu daitezke, hala nola, animalien arrastoekin, basoko soinuekin, giza jardueren arrastorekin... Hauen bidez, inguratzen gaituen ingurunearekin sinkronizatzen gara.



Artikutza topatu ditzazkegun zuhaitzen arteko ezberdintasunak.



Argitalpena, Artikutza naturaleza e historia;

Aukera ona duzue Artikutza gehiago ezagutu nahi baduzue! Artikutzaren erosketaren mendeurrenarekin bat eginez, Donostiako Udalak hainbat hedapen-ekintza egin ditu, besteak beste, liburu zientifiko eta bigarren liburu dibulgatiboaren argitalpena, eta bideo baten publikazioa:

Artikutzaren ondare eta natur balioari buruzko informazio zehatza biltzen duen "Artikutza Natureza e Historia" izeneko liburu zientifikoa argitaratu dute. Argitalpen honen helburua finkan egiten diren lan ugarien berri ematea da, eta, horrela, herritarrak kontzientziazten laguntzea, Artikutzaren egoera eta erabilerak aldatu dira denboran zehar, babes-neurri zorrotzen bidez, jarduera industrial handiko lekua izatetik kokagune berdingabe bihurtzera igaroz.

Argitalpen zientifiko honetan 30 ikertzailek baino gehiagok hartu dute parte, Aranzadi Zientzia Elkarteak koordinatuta. Liburua bi bloke handitan banatuta dago. Lehenengoa Artikutzako historiari buruzkoa da, artikuluak Artikutzako megalitismotik hasi eta Donostiako ur-hornidurarekin lotutako azken mendetako historiara heltzen dira, Erdi Aroko eta industriako historiari buruz. Bigarren blokeak finkaren balio naturalak sakontzen ditu: klima, geologia, hidrologia, fauna eta flora, etab.



Libro Artikutza Natureza e historia.

Liburuak bitxi natural honen berezitasunak ulertzen laguntzen digu eta baita ere, ulertarazten digu zelan historiak ahalbidetu duen gaur egun Artikutza biodibertsitateari dagokionez benetako altxorra izatea. Artikutzako kasu paregabearen ezin dugu esatera zaharra erabili, "Iraganeko edozein denbora hobe izan zen" badirudi Artikutzan alderantziz dela, gero eta hobeto dagoela!



Artikutza 1010-2019 Paradisu naturalaren ehun urte.

Udaletxeak argitaratutako dibulgaziozko bigarren liburuak: Artikutza 1919 – 2019 Paradisu naturalaren ehun urte. Liburu atseginagoa da, argazki eta ilustrazio askorekin, eta bertan Artikutzaren historia eta berezitasunak kontatzen zaizkigu, modu erraz eta ulerterrazean.

Bi liburuak Donostiako kultur etxe guztietan daude eskuragarri, edo liburu dendetan salgai.

Udaletxeak ere 100 Urtez Donostiako ur iturri izeneko bideoaren edizioa burutu du. Bertan, finkaren historia eta denbora horretan zehar izan duen bilakaera erreparatu da, hain leku berezi hau lortu arte. Bideoa publikoa da, eta Interneten aurki daiteke.



Bideoa ikusteko esteka:

https://www.youtube.com/watch?v=1fQuEPjGEPU&list=PLrrGyrOL0rGbe9Hg0Ms7wjzv-VJ3Hx2_z&index=3

ERRAIETATIK

Artikutzaren erabilera, sarbidea eta jarduerak

Dakizuenez, Artikutza ingurune babestua da, non Donostiako udalak kudeaketa lan handia egin izan duen beti, eta bisitariak beti harrera ona izaten duen arren, badira bete beharreko arauak. Baina zer dago debekatuta Artikutzan? Eta zergatik?

Hala da Artikutzan, araututa edo debekatuta dauden jarduerak daude. Adibidez, ohiz kanpoko kalitatea duten urak eta babestutako espezie batzuen habitata diren errekek babesteko debekatuta dago ibaietan arrantza egitea edo bainu librea,. Ehiza ere debekatuta dago finka osoan.


Naturaz gozatzeko lekua da Artikutza, baina errespetu osoz. Horregatik, debekatuta dago inguruko landareak erauztea edo kaltetzea, animaliak harrapatzea edo ondare historikoko elementuak erauztea. Izan ere, elementu natural horietako askok funtsezko faktorea jotzen dute ekosisteman. Etxeko txakurren kasuan, lotuta edo uneoro jabearen kontrolpean egon beharko dute, ingurunean kalterik ez eragiteko. Neurri horiek finkaren iraunkortasuna sustatzean oinarritzen dira, eta, horrela, zonaldearen edozein kalte saihesten da. Jarraian, bisitarien zalantza ohikoenak argitzen saiatuko gara, finkan autoa eta bizikletak erabiltzeari buruzkoak:



Kotxeak, Artikutzarako sarbide nagusia Gi-3631 errepidea da, Oiartzungo udalerritik Artikutzako atezaindegiraino iristen dena, Eskas izenez ere ezagutzen dena. Puntu horretan, autoa uzteko aparkaleku bat dago; hemen ibilbide ugari hasten dira eta oinez joateko sarrera librea da,. Artikutza auzoraino autoz jarraitu nahi izanez gero (6km aurrerago), Donostiako Udalak ematen duen baimen berezia behar da (25 auto egunean). Donostiako Udaleko informazio zerbitzuari (Udalinfo) eskatu behar zaio baimena, 943 48 10 00 telefono zenbakira deituz edo Udalaren webgunetik. Baimen kopurua mugatzeko arrazoiak eta helburua masifikazioa saihestea da.

Beste aukera bat Goizuetatik sartu nahi izanez gero, Arriurdiñeta harrobian dagoen aparkalekuan aparkatzea da, finkaren hegoaldeko sarreran (auzotik 10 kilometrora). Kasu honetan, ataka batek Artikutza auzora autoz sartzea galarazten dio bisitariari, baina, handik ere ondo seinaleztatutako bidezidorrak hasten dira.

Bizikletak Artikutzan bizikleten erabilera mugatua dago, bakarrik bide batzuetan dago baimenduta. Baina lasai, ondo seinaleztatuta dago, nahasterik egon ez dadin. Gaur egun bizikletentzako onartuta daude bideak ondokoak dira: errepidea, trenbidea, Enobietako urtegiaren vuelta eta Arriurdiñetaraino iristen den pista, hau da, Artikutza eta Goizueta arteko lotunea. Duela urte batzuk ez zegoen murrizketa hori, baina denbora gutxian txirrindularien presentzia izugarri hazi zen, batez ere Artikutzan bizikletaz txangoak egiteko lekuri proposena aurkitu zuten turismo-enpresen eraginez. Ondorioz, gehien erabilitako bidezidorrerako batzuetan eragina handia izaten hasi zuen, eta beharrezkoa izan zen jarduera arautzea. Atera mendira goatzera, baina hura errespetatuz!



BILDUMA

Viscum album, Mihura

Deskribapena

Viscum album edo bere izen arruta mihura lorantaceaseko familiako landare bat da. Zurtoinak zilindro-formako hainbat adarretan banatzen dira oinarritik, korapilotan banatuta. Oso forma bereizgarria du, eta erraz desberdintzen da.

Hostoei dagokienez, 2-8cm-ko lantzeolatuak dira eta zurtoinaren kolore berekoak. Aldiz, bere loreak horiak dira, azarotik maiatzera loratzen dira eta dioikoak dira, hau da, lore eme eta harrak igortzen ditu. Loreek baia itxurako fruituak sortzen dituzte, udazkenaren amaieran heltzen direnak, eta hegazti mota desberdinentzako elikagai gisa balio dute, pertsonentzat jangarriak ez direlarik. Baiak, haragizkoak edo likatsuak, kolore berde batetik itxura zeharrargitara izatera pasatzen dira.



Viscum album Argazkia: Planta atlas C.Gibson



Viscum album Enobietako urtegiaren inguruko zuhaitzak parasitatzen.

Espezie hemiparasita da, eta horrek esan nahi du hazteko behar dituen ura eta gatz mineralak lurretik hartu beharrean, beste landare batetik hartzen dituela, izerdiaren zati bat kenduz. Beraz, bizi irauteko, beste organismo batzuen menpe dago. Zuhaitzak parasitatzeko orduan, zuhaitz planifolioen edo hosto zabaleko zuhaitzen adarren gainean hazten da, hostoa estua eta ezkatatua izaten duten koniferoen orde.

Nabarmentzekoa da zuhaitzak parasitatzeko erabiltzen duen prozesua, *Viscum album* baia likatsuak ditu eta horietan haziak daude, txoriek jaten dituzte, hegaldian defekzionatzean, hazien hariak zuhaitz ezberdinetan geratzen dira adarrak inguratuz. Horrela, adar batean atxikitzen denean, erretze prozesua hasten da korapilo bat eratzean, elikatzen eta sinesten hasteko.

Erabilerak eta bitxikeriak

Izen zientifikoak, "Viscum" bere baien biskositateari egiten dio erreferentzia, ezaugarri hori dela hegaztiak harrapatzeko antzinako modu bat da. Gaur egun ere, txori biziak ehizatzekeo tranpetan, kalte fisikorik eragin gabe, erabiltzen dira. Halaber, mihurarekin zerikusia duen tradizio herrikoi ospetsu bat, esaten duena mihura duen ate baten azpitik igarotzen diren bikoteek musu eman behar dutela zorte ona izan nahi badute; izan ere, mihura aintzinetik dago lotuta erritu eta magia desberdinekin. Antza denez, ezkontza primitiboetan, heriotza, emankortasunarekin eta bizia emateko ahalmenarekin lotuta zegoen. Gabonetan gorostia bezalako apaingarri bezala ere erabiltzen da, eta toxikoa izan daitekeen arren, zenbait ezaugarri sendagarri lasaigarri atxikitzen zaizkio.


SUAREN EPELEAN

Hemen dituzue ingurumenaren kontzientziazioa sustatzera bideratutako proposamen batzuk, inguratzen gaituen inguruneari buruz dugun ezagutza handitzeko helburuarekin, batzuk etxeko txikienentzako pentsatuta!



Rachel Carsonen, La Primavera Silenciosa (1962) ospe handiko liburua da, pertsonen ingurumenean eragindako inpaktuei buruzko lehen liburuetakako bat. Bertan, pestizidek ingurumenean eragiten dituzten ondorio kaltegarriez ohartarazten zen, mobilizazio ekologista sustatu zuen eta ondorioz Nekazaritza Sailak pestiziden inguruan zuen politika berrikustea lortu zen. Urte batzuk geroago Barry Commonerrekin, El Círculo que se Cierra (1972) argitaratu zuen, non gizakiaren jardueren ekoesferan duten eragina azaltzen den. Lan honetan ikertzaileak lau lege edo

ekologiaren printzipioak zehazten ditu, guztia dago beste guztiarekin lotuta, dena doa nonbaitera, ezer ez da doan eta natura jakintsuagoa da. Printzipio horien bidez Commoner saiatzen da jendeak garai hartan ulertzen ez zuena azaltzen. Eta badirudi zentzu askotan ulertu gabe jarraitzen dugula...




Proposatutako liburuen portadak.

Jean-Luc Fromentalen, 365 pinguino, haurren artean ingurumenarekiko sensibilizazioa sustatzeko asmoz idatzitako ipuin bat da. Istorio baten bitartez, liburuak izaki bizidunak zaintzearen garrantzia eta gizakiak naturan duen papera txertatzen die haurrei. Familia horri pinguino bat ematen diote egunero, urtebetez. Horrela, etxeko txikienek irakurtzea animatu eta natura errespetatzeko gustua ere sustatzen da.

IRUDIEN GALERIA



Udaberria dator eta berarekin bizidun berriak. Anfibioen arrautzak. Argazkia: E. Ruiz



Ongietorri. Argazkia: E. Ruiz




Artikutzaren historiatic oinez.
Argazkia: M. Amezaga



Basoa gainera erortzen zaigul.
Argazkia: N. Amezaga



Atsedena hartu behar bada, hobe, bistekin. Argazkia: M. Castaño



Onddo urdin berdea. Argazkia: E. Ruiz



Musuak guztientzat. Mihura. Argazkia: E. Ruiz

Gogoratu gurekin partekatu nahiko bazenu Artikutzan ateratako argazki bitxiren bat edo gustuko duzunen baten bat, bidaliezaguzu helbide honetara: artikutzanatura@donostia.eus! Horrekin batera, bidali zure izen abizenak eta aipatu noiz, non edo nola atera duzun argazkia eta idatzi ezazu harentzako izenburu bat. Animatu!

“Artikutzako Ttanttak” Buletina jaso nahi baduzu, bidali zure datuak (izena, abizenak eta posta elektronikoaren helbidea) artikutzanatura@donostia.eus helbidera eta posta elektronikoaz jasoko duzu.

Halaber, jarduera bat egin nahi baduzu edo informazioa jaso, jarri gurekin harremanetan:

Znbk: 679 613 016 eta 620 337 875



